



ERRESERBATZEKO BALDINTZAK

Erreserba eskaera jasotakoan, erabilgarritasuna baieztatuko da. Erantzuna baiezkoa bada, seinalea nola egin azalduko da (zenbateko osoaren % 40), erreserba guztiz baieztatzeko helburuaz. Kopuru hori egonaldiaren zenbateko osotik kenduko da.

Gainerako zenbatekoa *check-in express* formularioaren bitartez ordainduko da; posta elektronikoz bidaliko da **iritsi baino 5 egun lehenago**; iristean hura harrera-lekuan entregatzea ere posible da. Ostatuen kasuan, 100 €ko fidantza itzulgarria ere gehituko da.

Eurocampingek erreserba bat bertan behera utzi dezake, iritsieran ikusten bada erreserba eskaeran emandako datuak ez datozela bat benetako datuekin.

Taldeen kasuan, premiazkoa da eskaera bat egitea erreserba burutzeko; eskaerok aurretik onartu behar dira. Familia-unitatearekin (edo baliokidearekin) ez datozen bezeroek hori argi adierazi beharko dute erreserba egitean. Bestela, kanpinak erreserba bertan behera uzteko eskubidea du.

Erreserban edozein aldaketa egiteko, idatzi helbide honetara: info@euro-camping.com. Erreserbaren datak aldatu nahi izanez gero, erreserba eskaera berrituko da, aurrekoa ezereztuz, eta esleipena erabilgarritasunaren arabera izango da. Maiatzaren 15etik aurrera, erreserba baten bigarren aldaketak, eta hurrengoetako bakoitzak, egon badaude, 10 €ko kostu estra izango du, administrazio-kudeaketa kontzeptupean. Ez da sarrera-datari eragiten dion aldaketarik onartuko, eskaera erreserbatutako sarrera-data baino gutxienez 7 egun lehenago egin ezean.

Kontratutako kontzeptu gehigarri guztiak idatziz baino ezingo dira baliogabetu, iritsiera-eguna baino lehenago. Kanpinak ezin du itzalik bermatu partzelan, nahiz eta inguru itzaltsu batean egon eta bezeroak berariaz itzala eskatu izan.

BALDINTZA OROKORRAK

Bizikidetasunaren alde, bezeroak Erabiltzaile-gida (Barne-araudia) beti betetzeko konpromisoa hartzen du, Eurocampingen egon bitartean.

(<http://www.euro-camping.com/informacion-practica/normativa/>)

BERTAN BEHERA UZTEKO BALDINTZAK

- Erreserba sarrera-eguna baino 45 egun lehenago bertan behera uzten bada: baliogabetze-gasturik ez.
- Erreserba 30 eta 45 egunen artean bertan behera uzten bada, sarrera-eguna baino lehenago: ordaindutakoaren % 50.
- Erreserba sarrera-egunetik 30 egun baino gutxiagora bertan behera uzten bada: ordaindutakoaren % 100.

Bertan behera uzteko aseguruak kontratatzeke gomendatzen dugu, ezustekoak ekiditeko.

OSTATUAK

Segurtasuna dela eta, guztiz debekatuta dago ostatuaren edukiera maximoa gainditzea.

Izan umea, izan heldua, guztiak dira banako bat edukierari dagokionez.

Badago egonaldian lagunak gehitzea, ostatuaren edukiera maximoa gainditu gabe. Berak erregistratutakoan, ezingo dira lagunak aldatu. Ezingo da kanpineko beste partzela edo bungalow batean erregistraturiko lagunik gehitu, nahiz eta ostatuan tokia egon.

Sarrera-ordua **17etatik** aurrera izango da, eta irteera-egunean ostatua goizeko **11k** baino lehen utzi behar da hutsik. Behe-denboraldian, baliteke ordutegia malguagoa izatea, baina harrera-lekuan baino ezingo da irteera-orduari buruzko informazioa eskatu eta jaso.

Erreserbek iritsiera- eta irteera-ordutegia errespetatu beharko dute. Aurreikusitako orduan iritsi ezean, iritsiera-eguneko 17etatik aurrera erreserbatuko da, hurrengo eguneko arratsaldeko 17ak arte. 24 ordu horiek igarotzen direnean, erreserba baliogabetuko da, eta ordaindutako zenbatekoa galduko, atzerapenaren berri idatziz eta aurretiaz eman ez bada. **Erreserban baieztatutako daten aurretik iritsiz edo ondoren alde eginez gero, galdutako gauen zenbatekoa ez da itzulgarria.**

Ostatuen kasuan, 100 €ko fidantza itzulgarria egongo da, kalte posibleak ordaintzeko. Egonaldiagatik ordaintzeke dagoenarekin batera egingo da pagamendua.

Azken garbiketa bezeroaren ardura da. Ostatueta ez da inolako animaliarik onartzen.

Eurocamping

PARTZELAK

Egonaldiak ezin dira 5 aste baino gehiago luzatu, eta partzelen edukiera maximoa 6 pertsona dira. **Izan umea, izan heldua, guztiak dira banako bat edukierari dagokionez.**

Erreserba egitean edo kanpinera iritsi aurretik eman beharko da lagunuen berri, eta *check-in*ean edo egonaldian ez da aldaketarik onartuko. Lagunei kontratatutako lehen egunetik azkenera fakturatuko zaie, gaua han igaro ala ez.

Egonaldi nagusia baino egonaldi motzagoko lagunak gehitzeko era bakarra dago: **ondoz ondoko 8 gau baino gehiago badira, eta familia-unitate berekoak**, horren berri eman baldin bada erreserba egitean edo kanpinera egonaldi nagusia iritsi aurretik. Lagunok, irtetea, eskumuturreko identifikagarria harrera-lekuan utzi beharko dute. Hala ez bada, egonaldi nagusiaren irteera-datara arte fakturatuko da.

Egonaldian, ez da lagun-aldaketarik onartzen. Hasierako dataren ostean sartzen den edonor bisitatzat hartuko da.

Partzelak erabilgarri egongo dira sarrera-egunean, 13ean, eta hutsik egon behar dute irteera-egunean, 12ak baino lehen. Erreserbek iritsiera- eta irteera-ordutegia eta datak errespetatu beharko dituzte. Hori ezinezkoa bada, iristean, partzela sarrera-eguneko 13etik hurrengo eguneko 12ak arte erreserbatuko da. 23 ordu horiek igarota, erreserba bertan behera geratuko da, eta aurretiaz ordaindutakoa galdua, non eta kanpina ez den jakinaren gainean jarri, alde aurrez eta idatziz.

Erreserban baieztatutako daten aurretik iritsi edo ondoren alde eginez gero, galdutako gauen zenbatekoa ez da itzulgarria, eta bezeroak partzela erabiltzeko eskubide osoa galtzen du.

MY PLACE

Badago ostatu edo partzela kopuru jakin bat erreserbatzeko aukera, *MyPlace* aukera kontratatuz. Zerbitzu atzeraezina da; hau da, behin baieztatuta, ezingo da baliogabetu, eta zenbatekoa ez da itzulgarria izango. Irtsiera-egunean, ez da aldaketarik onartzen. Zerbitzu hau kontratatuta badago ere, eta ezinbestekoa bada, Eurocampingek bezeroak tokirik aproposenean kokatzeko eskubidea du, dagokion dirua itzulita.

Eurocamping

Aukera hori kontratatu ez bada, partzela- edo ostatu-lehentasunak erreserba egitean adierazi ahalko dira; aintzat hartuko ditugu, baina ezin ditugu berretsi.

MyPlace kontratatzeko prozedura

Erreserba egitean, bezeroak zer partzela nahi dituen adieraziko du.

Jarraian, erreserba-sailak eskatutako partzela ea erabilgarri dagoen baieztatuko du; hala ez bada, erreserbatuta geldituko diren antzeko aukerak proposatuko ditu. Horrelakorik ere ez badago, zerbitzua bertan behera geratuko da.

Momentu horretan, bezeroaren ardura izango da beste aukera onartzea edo MyPlace zerbitzua ezeztatzea, proposaturiko alternatiba gustuko ez badu.

BISITAK

Goi-denboraldian, ez da bisitarik onartzen, kanpinaren edukiera dela eta. Egonaldi nagusiaren zati ez den pertsona oro izango da bisita.

Bisitak iristen direnean, titularrak hartuko ditu, harrera-tokian, eta behar bezala izena eman dutela egiaztatuko du. Horretarako, nor bere nortasun-agiriak aurkeztuko ditu, baita dagokion tarifa ordaindu ere.

Bisitak hurrengo eguneko 18ak arte egon ahalko dira instalazioetan, baldin eta partzela edo ostatuko edukiera maximoa ez bada gainditzen.

Gure bezeroen lasaitasuna bermatzeko, iruzkindu nahiko genuke Confort Plus txaleta, Beste Village, Premium villa eta Luxe villa ostatuen instalazioak han ostatu hartutako bezeroek erabiltzekoak baino ez direla. Beraz, ezin ditu kanpinean ostatu hartu duen beste inork erabili, ezta edukiera maximoa gainditu duten bisitek ere.